



TREBAKUNTZA 2011/06: ZEIN ETA ZER GALDETZAILEAK

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * **Zer** bide hartu duzu, mendikoa ala kostakoa?
2. * **Zein** ezaugarri ditu eraiki duten etxebizitza berriak?
3. * **Zein** kolageno mota da nagusi kartilago hialinoan?
4. * Idazkariak emandako arrazoietan, **zer** da gustatu ez zaizuna?
5. * Nafarroako **zer** eskualdetan gertatu da istripua?

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

ZEIN GALDETZAILEA

Mota bereko zenbait gauzaren artean hautua egitea eskatzen du ZEIN galdetzaileak. Esaterako:

1. Hautua egin beharreko elementuak esplizituki ageri dira honako adibide hauetan [ZEIN + izena + aditza]:

*Hauetatik, zein ardo nahi duzu, zuria ala beltza?
Biotatik, zein ezpata, urrezkoa ala zilarrezkoa?
Zein Asierrez ari zara, altuaz ala txikiaz?*

Baita adibide hauetan ere [ZEIN + da + izenondoa + superlatiboa]:

*Erosi dituzun hiru liburu horien artean, zein izan da garestiena?
Bizkarrezurra osatzen duten 34 ornoetan, zein da makalena eta erorikoen ondorioz maizen hausten dena?*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



2. Honako galdera hauetan, berriz, elementuak inplizituki adierazita daude (edo egon daitezke), testuingurua lagun [ZEIN + izena + aditza]:

Zein euskalki hartu duzu oinarriztat hiztegirako?

Zein kilometrotan gertatu zen istripua?(Eman dezagun A-8 autobidean gertatu dela badakigula.)

ZER GALDETZAILEA

Izen baten aurrean, haren nolakotasun edo xehetasun ezezagun bat ordezkatzeko du ZER galdetzaileak [ZER + izena] + aditza...?:

Zer gauza dira aingeruak?

Etxean zer lan egiten duzu?

Zer adin zuen?

Zer pisu zenuen 25 urterekin?

[ZER + [izena + mota]] + aditza ...?

Zer zelula motak aska dezake histamina odol-hodietatik gertu?

Sarritan gertatzen da, ordea, ZEIN oker erabiltzea ZER galdetzailearen ordezkari (edota galdera egiteko bestelako moduen ordezkari). Esaterako:

Posta elektronikoaren helbidea modu laburrean jartzeko gutun batean, zein da formula euskaraz?

Zein da berbereen egoera Marokon?

Zein desberdintasun dago 'efektu', 'ondorio' eta 'oihartzun' hitzen artean?

Zein da bidea 'riesgo' eta 'peligro' hitzen artean bereizketa egiteko euskaraz?

Zein da 'ala' eta 'edo'ren erabilera?

Halakoak beste modu batera adieraz daitezke:

Posta elektronikoaren helbidea modu laburrean jartzeko gutun batean, zer formula erabiltzen da euskaraz? / Nola jar daiteke euskaraz posta elektronikoaren helbidea modu laburrean?

Nolakoa da berbereen egoera Marokon?

Zer alde dago 'efektu', 'ondorio' eta 'oihartzun' hitzen artean?

Nola bereizi daitezke euskaraz gaztelaniazko 'riesgo' eta 'peligro' hitzak?

Noiz erabiltzen da 'ala' eta noiz 'edo'?



Beraz:

1. **Zein** bide hartu duzu, mendikoa ala kostakoa?
2. **Zer** ezaugarri ditu eraiki duten etxebizitza berriak?
3. **Zer** kolageno mota da nagusi kartilago hialinoan?
4. Idazkariak emandako arrazoietan, **zein** da gustatu ez zaizuna?
5. Nafarroako **zein** eskualdetan gertatu da istripua?

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org